

## Felipe Arrese ta Beitia (1841-1906)

*Deia*, 1983-08-15.

Kepa Enbeitak eta Pello Mari Otañok Euskalerrriaren osotasuna abestu badute, *Felipe Arrese ta Beitiak* hizkuntzari, *Euskarari*, abestu dio sistesi ederrean.

Ezagunak dira bertso horiek, herri kanta ziruditen! (hau laudario gisa diotzat) eta ez, badute aita ezagunik.

Otxandion jaio zen maiatzaren 25ean (Sabin Arana jaiotzeko hogeitalau urte falta dira oraindik). Gaztedanik erakutsi zuen eskulturako zaletasuna; hamairu urtez bidali zuen arotza zen bere aitak Gasteizera, Markos Ordozgoiti maisuarekin marrazten ikasi zezan; ezkondu egin zen Anjela Bengoa-rekin karlisten bigarren gerra hasterako, eta Donostian egin zituen hiru arte (1873-1876). Otxandion *santugiñe* deitzen zioten, bertako elizan agertzen diren zurezko eskultura eta beste lan gehienak Feliperen eskukoak baitziren, eta herriz kanpo ere egin zituen Oñatin, Gasteizen eta Durangon. Hau izan zen gero neuk ondo ezagutu nuen abertzale handi eta Gasteizko altaregile ospetsua zen Erroman Goikoetxea Otxandiarraren eta Donostiako Isidoro Uribesalgo handiaren maisu.

Eskultore eta Poeta, biak batera zituen Felipe Arrese ta Beitiak berezko bezala bere baitan jaiok. 1879an irabazten du Elizondon eraturako lehiaketan lehen saria bere "Ama Euskeriari azken agurrak" lan ederrarekin, eta geroztik garaile irten zen Beran, Iruñean, Bilbon, Markinan, Hondarribian eta Maulen, *Euskalerrria* aldizkarian argitaratzen ditu lanak. Harremanak izan zituen Menendez y Pelayo eta Pardo Bazanekin, eta batez ere Euskaltzale ziren Duvoisin Kapitainarekin, Abadie, Azkue, Trueba eta Etxegarairekin, beste askoren artean. Arreseren lehen saila 1900ean agertu zen *liburu* gisa (Campionen hitzaurrearekin): *Ama Euskeriaren liburu kantaria*; 1902an: *Astiorduetako bertsozko lanak*, Bilboko Astui-ren etxean biak.

1909garrengo urtarrilak 16.

1933an hartu zuten olerki guztiak argitaratzeko asmoa, baina lehenengoa bakarrik agertu zen; eta 1956an, eta Aita Onaindia, K.O. sarreragile trebe bezala, irten zen *olerkiak*<sup>1</sup> izenarekin bederatzi zatitan banatua, eta bigarreanean, "lirika kantuak" deritzanan, dator: "Aritzari".

### Aritzari

"Euskaldun jaio nintzan, / ta euskaldun azi, / Euskaraz eustalako / Amak erakutsi; / Euskara laztan maite, / zabiltz nigaz beti, / euskara ill ezkerro / ez dot gura bizi.

"Euzkaldun negan, ama, / Ta euskaldun aita, / Euskaldun bere nas, / Eurak legez baita; / Euskaldun ill zirean, / Euskaldun bizita, / Euskaldun Arbolea / Zutirik itxita".

<sup>1</sup> *Olerkiak*, F. Arrese-Beitia, Euskal Idazleak, Euskaltzaindiaren ardurapean. Bilbao, 1956.